kak egin gabe), edo O.A.etan adierazitako gehienezko garaieraraino iritsiko den hormigoiz, goialdea hormigoizko edo harrizko pastaz amaituta. Hortik gora burdin sarezko, tramexeko, metalezko profilaketazko edo palaxuzko itxiturak erabili ahal izango dira.

3.2.7. Diseinu-, estetika eta teknika-baldintzak

1976ko azaroaren 24ko Ordenantzan ("Etxebizitza Sozialen Kalitate eta Diseinuari buruzko Arau Teknikoak" izenekoan) ezarritako baldintzak betetzea eskatuko zaie eraikuntza guztiei.

3.2.8. Bestelako arau orokor batzuk.

Aurrekoez gain, Iruña Okako Ordezko Arauetako Hirigintza Arauetako artikuluak dira aplikatzekoak, baina beti ere Plan Partzial honetako ordenantzek izango dute lehentasuna, beste horiekin bateraezinak izatea gertatzen bada.

3.3. INTERES PUBLIKO ETA SOZIALEKO ZERBITZUEN LURZORUARI APLIKATZEKO ARAUAK.

3.3.1. Erabilera.

Interes Publiko eta Sozialeko Zerbitzuei berez dagozkien erabilerak onartzen dira halakotzat jotako lurzoruan, hala nola gizartelaguntzakoak, osasunekoak, kulturakoak, erlijiokoak, administraziokoak, jolasekoak, eta abar.

3.3.2. Lerrokadurak.

Eraikuntzaren gehienezko lerrokadurak dagokion planoan definitzen dira.

3.3.3. Atzeraguneak.

Eraikuntzaren higidura-eremu bat zehazten da planoetan.

3.3.4. Garaierak.

Eraikuntzaren gehienezko garaiera behe solairua eta beste bat izango da, eta estalkipeko espazioa ere erabili ahal izango da.

3.3.5. Solairuen garaiera.

Solairu bakoitzaren gutxieneko garaiera librea 2,80 m izango da.

3.3.6. Lurzatiaren itxitura.

Itxitura opako edo argi-iragazkorrei buruz, Ordezko Arauetako Hirigintzako Arauetan ezarritakoa bete beharko da.

Hori horrela izanik ere, Plan honen eremuaren barruan, espazio publikoekin muga egiten duten itxiturak harri-ormaz egingo dira (plakak egin gabe), edo O.A.etan adierazitako gehienezko garaieraraino iritsiko den hormigoiz, goialdea hormigoizko edo harrizko pastaz amaituta. Hortik gora burdin sarezko, tramexeko, metalezko profilaketazko edo palaxuzko itxiturak erabili ahal izango dira.

3.2.7. Diseinu-, higiene- eta teknika-baldintzak.

1976ko azaroaren 24ko Ordenantzan ("Etxebizitza Sozialen Kalitate eta Diseinuari buruzko Arau Teknikoak") ezarritako baldintzak betetzea eskatuko zaie eraikuntza guztiei.

3.2.8. Bestelako arau orokor batzuk.

Aurrekoez gain, Iruña Okako Ordezko Arauetako Hirigintza Arauetako artikuluak dira aplikatzekoak, baina beti ere Plan Partzial honetako ordenantzek izango dute lehentasuna, beste horiekin bateraezinak izatea gertatzen bada.

los cierres que limiten con espacios públicos se realicen con mampostería de piedra (no aplacado) o con hormigón visto hasta la altura máxima señalada en las NN. SS. y remate superior con albardilla de hormigón o de piedra. A partir de esa altura se podrán utilizar cierres de malla, trámex, perfilería metálica y setos.

3.2.7. Condiciones de diseño, higiénicas y técnicas.

Para todas las edificaciones, se exigirá el cumplimiento de las condiciones establecidas en la Ordenanza de 24 de noviembre de 1976 "Normas Técnicas de Diseño y Calidad de las Viviendas Sociales".

3.2.8. Otras Normas de carácter general.

Además de las Normas anteriores, son de aplicación los artículos correspondientes de las Normas Urbanísticas comprendidas en las Normas Subsidiarias de Iruña de Oca, pero prevaleciendo siempre las ordenanzas de este Plan Parcial sobre las contenidas en los citados artículos, en los casos de incompatibilidad.

3.3. NORMAS APLICABLES SOBRE SUELO DE SERVICIOS DE INTERES PUBLICO Y SOCIAL.

3.3.1. Uso.

Se admiten sobre la parcela señalada los usos propios de Servicios de Interés Público y Social: asistencial, sanitario, cultural, religioso, administrativo, recreativo, etc.

3.3.2. Alineaciones.

Las alineaciones máximas de la edificación se definen en el plano correspondiente.

3.3.3. Retranqueos.

Se define en planos un área de movimiento de la edificación.

3.3.4. Alturas.

La altura máxima de la edificación será de planta baja más una altura, permitiéndose además el aprovechamiento del espacio bajocubierta.

3.3.5. Altura de pisos.

La altura libre mínima de cada planta será de 2,80 m.

3.3.6. Cerramientos de parcela.

Deberá respetarse lo señalado con respecto a las alturas de cierres opacos o translúcidos, en las Normas Urbanísticas contenidas en las Normas Subsidiarias.

Con independencia de ello, y para el área comprendida dentro de los límites del presente Plan se establece la obligatoriedad de que los cierres que limiten con espacios públicos se realicen con mampostería de piedra (no aplacado) o con hormigón visto hasta la altura máxima señalada en las NN. SS. y remate superior con albardilla de hormigón o de piedra. A partir de esa altura se podrán utilizar cierres de malla, trámex, perfilería metálica y setos.

3.3.7. Condiciones de diseño, higiénicas y técnicas.

Para todas las edificaciones, se exigirá el cumplimiento de las condiciones establecidas en la Ordenanza de 24 de noviembre de 1976 "Normas Técnicas de Diseño y Calidad de las Viviendas Sociales".

3.3.8. Otras Normas de carácter general.

Además de las Normas anteriores, son de aplicación los artículos correspondientes de las Normas Urbanísticas comprendidas en las Normas Subsidiarias de Iruña de Oca, pero prevaleciendo siempre las ordenanzas de este Plan Parcial sobre las contenidas en los citados artículos, en los casos de incompatibilidad.

## HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

**2.477**

**355/2001 FORU AGINDUA, apirilaren 6koa, Berantevillako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren dosierrari buruzkoa.**

"Berantevillako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren dosierra ikusi ondoren.

AURREKARIAK

Lehena.- 2001eko otsailaren 12ko sarrera-datarekin idazki bat sartu zen Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian; idazki horren bitartez, Berantevillako Udalak Berantevillako Hirigune Historikoa

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y URBANISMO

**2.477**

**ORDEN FORAL 335/2001, de 6 de abril, en relación con el expediente del Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Berantevilla.**

"Visto el expediente de Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Berantevilla.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante escrito con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava, del día 12 de febrero de 2001, el Ayuntamiento de Berantevilla remite expediente de Plan

Birgaitzeko Plan Bereziaren dosierra —berak sustatutakoa— igorri zuen.

Bigarrena.- Udalbatzarrak, 1997ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Plan horri hasierako onarpena ematea erabaki zuen, eta dosierra jendaurrean erakusgai edukitzea hilabete batez; horixe egin zuen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALaren 1997ko otsailaren 14ko 18. alean, 1997ko otsailaren 21eko El Correo egunkarian eta Udalaren iragarki-oholean iragarki bana argitaratuz.

Hirugarrena.- Aipatutako epe horretan alegazio bat aurkeztu zen, bai eta onetsi ere, eta Udalak, 1996ko apirilaren 27ko bilkuran, behinbehineko onarpena eman zion dosierrari; gero, Arabako Foru Aldundiari igorri zion dosier hori, behin betiko onar zezan; 2001eko otsailaren 12an sartu zen Arabako Foru Aldundian.

Laugarrena.- Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari eta Kultura Sailari txostenak eskatu zitzaizkion; Kultur Ondarearen Zentroak 2001eko martxoaren 23an helarazi zuen berea.

Bosgarrena.- Udalbatzarrak, dosierra behin betiko onartzeko igorri aurretik, 2001eko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Foru Aldundiari eskatzea ezaba zezala Planaren Hirigintzako Arauetako 40.3.8 artikulua, lehioetan zura erabiltzeko betebeharrari buruzkoa, dosierra behin betiko onartzeko egintzan bertan.

OINARRIAK

Lehena.- Dosier horren helburua da Berantevillako hirigune historikoa xeheki antolatzea.

Bigarrena.- Aurkeztutako agiri teknikoak aztertu eta gero, ondorio hau atera da: betetzen direla indarrean den hirigintzako legeria, eta, bereziki, 308/2000 Dekretuak —Urbanizatutako eta Eraikitako Ondarea Birgaitzeko ekintza babestuei buruzkoa— ezartzen dituen xedapenak.

Hirugarrena.- Aurrekoa gorabehera, Kultura Sailak gomendio batzuk eman ditu bere txostenean, eta hain argi daude arrazoituta, non kontuan hartzekoak diren. Horrela bada, Plana hobetu egin behar da hemen adierazten den gisan:

A. Plazako arkupeen babes-maila handitzea, gainerako osagaien babesaren heineraino, halako moldez non arkupeotan egin beharreko lanak kontserbaziorako zaharberritzearen irizpideekin egingo diren, 308/2000 Dekretuaren I Eranskinean ezartzen den moduan.

B. Orobat, Kale Nagusiko 2 zenbakiko Dorretxearen babes-maila ere handitzea, erreforma-ekintzaren maila emanez, 308/2000 Dekretuaren I Eranskinean ezartzen diren baldintzen arabera.

C. Berantevillako Hirigune Historikoko Arkeologia Gunea, I Eranskinean zehaztutako zedarripenarekin, Hirigintzako agiriaren Katalogoan sartzea; Gune hori Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrearen baitako Ondasunen zerrendan sartuko da aurki, eta 7/1990 Legearen 45.5 artikuluak ezartzen duen babesa esleituko zaio.

D. Agiriak egiten dituen 189/1990 Dekretuaren aipamenak eguneratu eta zuzentzea, horren ordez 308/2000 Dekretua (Urbanizatutako eta Eraikitako Ondarea Birgaitzeko Ekintza Babestuena) aipatzea baitagokio.

Laugarrena.- Udalak 2001eko otsailaren 9eko bilkuran hartutako erabakia — Aldundiari eskatzen zion, dosierra behin betiko onartzeko egintzarekin batera, ezaba zezala araudiko 40.3.8 artikulua, leihoetako arotz-lanetan egurra erabiltzeko betebeharra ezartzen duena—, ez dago onartzerik, bi arrazoi hauengatik:

Lehenik, Udalak eman duen arrazoia, "alderatuz gero, babes-maila bera duten udalerriko beste gune batzuekiko bidegabekeria izatea", ez da aski, zeren eta, alde batetik, ez baita zuzena beste gune batzuekin alderaketa egitea, Berantevillako Hirigune Historikoak berak bakarrik osatzen duelako multzo bat eta ertaroan sortutako hiribildua delako; eta bestetik, ez baita onargarri udalerriko beste gune batzuetan ezartzekoak diren neurri orokorrak bereizketarik egin gabe edonon aplikatzea, kasuan-kasuan teknikoki onak direla frogatuta ez bada, eta ez da horrelakorik egin honako honetan.

Eta bigarrenik, bere horretan erabakiorra den arrazoia: Udalak baldintza hori ezabatzea eskatu du, baina ez du horren ordezkoa proposatu, eta horrek, eskaria onartuz gero, hutsune nabarmena sor-

Especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Berantevilla, promovido por su Ayuntamiento.

Segundo.- En sesión del Ayuntamiento Pleno del día 29 de enero de 1997, el Ayuntamiento de Berantevilla acordó aprobar inicialmente el Plan de referencia, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante la publicación de los correspondientes anuncios en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, número 18, de 14 de febrero de 1997, en el periódico El Correo del día 21 de febrero de 1997 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Tercero.- Durante el plazo referido fue presentada una alegación la cual fue estimada, procediendo el Ayuntamiento en sesión del día 25 de abril de1997 a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva donde tuvo su entrada el 12 de febrero de 2001.

Cuarto.- Solicitados los pertinentes informes a los Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, y de Cultura, por parte del Centro de Patrimonio Cultural fue remitido el día 23 de marzo de 2001.

Quinto.- Antes de la remisión citada, en la sesión plenaria celebrada el día 9 de febrero de 2001, la Corporación adoptó el acuerdo de solicitar a la Diputación Foral que en el acto de aprobación definitiva del expediente suprima el artículo 40.3.8 de las Normas Urbanísticas del Plan, referente a la obligación de utilizar la madera en la carpintería de las ventanas.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente expediente tiene por objeto la ordenación pormenorizada del Casco Histórico de Berantevilla.

Segundo.- Analizada la documentación técnica aportada se deduce que cumple la legislación urbanística vigente, y, en especial, las determinaciones que sobre los planes especiales de rehabilitación integrada exige el Decreto 308/2000, sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado.

Tercero.- No obstante lo anterior, el Departamento de Cultura, en su informe, ha efectuado unas recomendaciones que en atención a su clara motivación deben ser tenidas en consideración. En consecuencia, el Plan debe ser perfeccionado en este sentido:

A. Incrementar el grado de protección de los soportales de la Plaza hasta equipararlo con la protección otorgada al resto de elementos, de tal modo que las obras que se realicen en este elemento se plantearán con los criterios de restauración conservadora, en los términos previstos en el Anexo I del Decreto 308/2000.

B. Incrementar, asimismo, el grado de protección del Torreón de la calle Mayor número 2, otorgándoles al menos un nivel de intervención de reforma, en los términos previstos en el Anexo I del Decreto 308/2000.

C. Incluir, en el Catálogo del documento urbanístico, de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Berantevilla, la cual formará parte, en breve, de la relación de Bienes incluidos en el Inventario General del patrimonio Cultural Vasco, con la delimitación especificada en el Anexo I, otorgánlode la protección que el artículo 45.5 de la Ley 7/1990 señala.

D. Actualizar las referencias realizadas en el documento al Decreto 189/1990, sustituyendo el mismo por el Decreto 308/2000 sobre actuaciones protegidas de rehabilitación patrimonio urbanizado y edificado.

Cuarto.- En lo que se refiere al acuerdo de la Corporación, adoptado en la sesión del día 9 de febrero de 2001, de solicitar a la Diputación que, en el acto de aprobación definitiva del expediente, suprima el artículo 40.3.8 de la normativa que obliga a utilizar la madera en las carpinterías de las ventanas, no cabe su consideración por dos razones.

La primera de ellas porque la motivación aportada por el Ayuntamiento, evitar la existencia de "agravios comparativos con otras zonas del municipio con el mismo grado de protección", no es suficiente, pues, de un lado, la comparación con otras zonas no es válida ya que sólo el Centro Histórico de Berantevilla tiene carácter de conjunto y de villa de fundación medieval, y de otro, la aplicación indiscriminada de medidas generales exigidas en otros ámbitos del municipio sólo es admisible cuando se demuestra en cada caso su bondad técnica, cosa que no se ha hecho.

La segunda razón, determinante por sí misma, consiste en que el Ayuntamiento solicita la anulación de la condición comentada, pero no propone la sustituta con lo que se produciría, en el supuesto de

tuko luke, hirigune historiko bateko eraikinen fatxaden osakera estetikoari eragingo bailioke.

Edozelan ere, Udalak leihoetako arotz-lanetan egurra erabiltzera behartzen duen eskakizuna ezabatu nahi badu, Plan Berezi honetan aldaketa egitea dauka, beti ere aldaketa arrazoitu eta justifikatuta eta ordezko araudi zehatza emanda.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATU DUT

Lehena.- Berantevillako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia behin betiko onartzea, honako aldaketa hauek sartuta:

A. Plazako arkupeen babes-maila handitzea, gainerako osagaien babesaren pareko egin arte, halako moldez non arkupeotan egin beharreko lanak kontserbaziorako zaharberritzearen irizpideekin egingo diren, 308/2000 Dekretuaren I Eranskinean ezartzen den moduan

B. Orobat, Kale Nagusiko 2 zenbakiko Dorretxearen babes-maila ere handitzea, erreforma-ekintzaren maila emanez, 308/2000 Dekretuaren I Eranskinean ezartzen diren baldintzen arabera.

C. Berantevillako Hirigune Historikoko Arkeologia Gunea, I Eranskinean zehaztutako zedarripenarekin, Hirigintzako agiriaren Katalogoan sartzea; Gune hori Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrearen baitako Ondasunen zerrendan sartuko da aurki, eta 7/1990 Legearen 45.5 artikuluak ezartzen duen babesa esleituko zaio.

D. Agiriak egiten dituen 189/1990 Dekretuaren aipamenak eguneratu eta zuzentzea, horren ordez 308/2000 Dekretua (Urbanizatutako eta Eraikitako Ondarea Birgaitzeko Ekintza Babestuei buruzkoa) aipatzea baitagokio.

Bigarrena.- Ezetza ematea Berantevillako Udalbatzarrak 2001eko otsailaren 9an egindako bilkuran erabakitako eskaerari, Planaren Hirigintzako Arauetako 40.3.8 artikulua ezabatzekoari.

Hirugarrena.- Aldaketa horiek ez dira funtsezkoak, eta zuzendutakoan Foru Aldundiari bidaliko zaio dosierra, berriro jendaurrean ipini beharrik gabe, bete beharrekotzat aldarrika dezan eta dagozkion diligentziak egin eta argitara dezan.

Laugarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka nahierako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jaso edo argitatu ondoko egunetik kontatzen hasita; edo, bestela, zuzen-zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; honako xedapen hauei jarraituz egin ahal da hori: Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen —urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen— 116 eta 117 artikuluak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua.

Hori guztia ez da eragozpen izango bidezko irizten zaion beste edozein errekurtso erabili ahal izateko."

Vitoria/Gasteiz, 2001eko apirilaren 6a.– Herrilan eta Hirigintza Saileko foru-diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILA.

ser aceptada, una laguna de cierta relevancia al afectar a la composición estética de las fachadas de los edificios de un centro histórico.

En cualquier caso, si el Ayuntamiento desea proceder a la anulación de la exigencia de la utilización de madera en la carpintería de las ventanas, siempre podrá proponer una modificación del presente Plan Especial, la cual deberá aportar la motivación y justificación de la misma, y la normativa precisa que la sustituye.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Berantevilla, con las siguientes modificaciones:

A. Incrementar el grado de protección de los soportales de la Plaza hasta equipararlo con la protección otorgada al resto de elementos, de tal modo que las obras que se realicen en este elemento se plantearán con los criterios de restauración conservadora, en los términos previstos en el Anexo I del Decreto 308/2000.

B. Incrementar, asimismo, el grado de protección del Torreón de la calle Mayor número 2, otorgándoles al menos un nivel de intervención de reforma, en los términos previstos en el Anexo I del Decreto 308/2000.

C. Incluir, en el Catálogo del documento urbanístico, de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Berantevilla, la cual formará parte, en breve, de la relación de Bienes incluidos en el Inventario General del patrimonio Cultural Vasco, con la delimitación especificada en el Anexo I, otorgándole la protección que el artículo 45.5 de la Ley 7/1990 señala.

D. Actualizar las referencias realizadas en el documento al Decreto 189/1990, sustituyendo el mismo por el Decreto 308/2000 sobre actuaciones protegidas de rehabilitación patrimonio urbanizado y edificado.

Segundo.- Desestimar la solicitud presentada por el Ayuntamiento de Berantevilla, acordada en la sesión plenaria celebrada el día 9 de febrero de 2001, referente a la anulación del artículo 40.3.8 de las Normas Urbanísticas del Plan.

Tercero.- Las anteriores modificaciones no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declara su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Cuarto.- Publicar la presente resolución en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Quinto.- Contra la presente Resolución podrá ser interpuesto recurso potestativo de reposición ante el mismo Órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación o su publicación, o ser impugnada directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley de Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero, así como en el artículo 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Todo ello, sin perjuicio de que puedan ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente."

Vitoria-Gasteiz, a 6 de abril de 2001.– El Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

## KULTURA SAILA

**2.336**

**115/2001 FORU AGINDUA, apirilaren 3koa, zeinaren bidez "Arte Plastikoetako X. Amarica Anuala"-ren deialdia onartzen baita (Produkzioa).**

Kultura Sailak ARTE PLASTIKOETAKO X. AMARICA ANUALA (Produkzioa) garatzeko dirulaguntzetarako 2001eko ekitaldiko deialdia egitea proposatu du.

Beharrezko diren txostenak ikusi dira.

Hori dela eta, dagozkidan ahalmenez eta uztailaren 30eko 154/99 Foru Dekretu bidez Diputatu Nagusiak emandako eskuordetzaz baliatuta, hau

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

**2.336**

**ORDEN FORAL 115/2001, de 3 de abril, del Diputado de Cultura, por la que se aprueba la convocatoria de la "X Anual Amárica de Artes Plásticas" (Producción).**

El Departamento de Cultura propone la Convocatoria pública de subvención para el desarrollo de la X ANUAL AMARICA DE ARTES PLASTICAS (Producción), durante el ejercicio 2001.

Vistos los informes preceptivos.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen y de la delegación conferida por el Diputado General mediante Decreto Foral número 154/99 de 30 de julio,